

TALUR (Adimen desgaitasun audten pertsonentzako aisialdi eta denbroalibreko elkarte)



Kalkutako Teresa kalea 7-9 (etxabea) 01008 Vitoria-Gasteiz

945 06 05 26

info@talur.es / voluntariado@talur.es

www.talur.es

Talur irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta honeko helburu nagusi hauek ditu: adimen-desgaitasuna duten pertsonen garapena, ahalduntzea eta autonomia sustatzea, baita haien gizarteratzea ere. Talur-ek estrategiak sustatzen ditu eta tresna zehatzak eskaintzen ditu kolektibo horren ekintza eta parte-hartze komunitariorako. Haren jardura Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren balioetan oinarritzen da, eta, bereziki, honako balio hauetan: berdintasuna eta diskriminaziorik eza, irisgarritasuna, bizitza independentea eta komunitatean sartzea, mugikortasun pertsonala eta kultura-bizitzan, jolas-jardueretan, aisialdian eta kirolean parte hartzea.

Beste zerbitzu batzuen artean, aisialdi ihezitzaileko eta parte-hartze komunitarioko jarduerak eskaintzen dituzte, adimen-desgaitasuna duten pertsonen beren eutonmiarako oinarritzko gaitasun eta trebetasun sozialak eskuratzeko aukera ematen dietenak. Era berean, laguntza, asteden-, sentsibilizazio- eta dibulgazio-zerbitzuak eskaintzen dituzte, desgaitasunaren mundua ikusarazteko informazio-kanpainen bidez.

Fundación Vital Fundazioaren lankidetzan

Vital Fundazioa 2017. urtetik ari da Talur elkartearekin lankidetzan. Urte hartan, erakundeak abiarazi zuen laguntza-deialdira aurkeztu zuten '**Partaidetza komunitarioa. Ni ere banago, utzidazu laguntzen**' izeneko proiektua eta aurrera atera zen.

Ondoren, Talur-ekin lankidetzan jarraitu da proiektu horretan, urteko hitzarmen bat sinatuz. Helburua da dimen desgaitasuna duten pertsonak gizarte honetako kide AKTIBO bihurtzea, hainbat programaren bidez, hala nola egoitzetako, kirol ekitaldietako edo elkarte ekitaldietako boluntariora programen bidez. Oinarrizko gaitasunei buruzko prestakuntzaren, inplikazio pertsonaleko programen eta parte-hartze komunitarioko programen bidez ere bai.